

Victorino Zubillaga Zubizarreta

*Leintz Gatzaga,
Gipuzkoa
(1917-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Ama Abadiñoko "Mendiola" auzokoa, eta amaordea ere auzo berekoa izan zituen; aita Gatzagakoa. Victorino Errosario kaleko 15ean jaio eta bizi izan da. Baserriko lanez gainera, Eskoriatzako "Forjas vascasen" egin zuen lan gerra aurretik. Gerora Aretxabaletako "Cerrajería Valle Lenizen" ibili zen lau urtean, gatz fabrikan 9-10 urtean, eta Eskoriatzako "Ezkurran" 18-20 urtean.

Zintak

LEI-001

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data:** 2002-12-07
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

LEI-002

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Data:** 2002-12-07
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

LEI-007

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Leintz Gatzaga
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-08
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

LEI-008

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Leintz Gatzaga
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-08
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

LEI-026

- **Proiektua:** Loramendi Euskara Elkartea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkona Gorostiza, Erika - Barandiaran Zubillaga, Ainhoa
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Euskara Elkartea, Loramendi

Pasarteak

1. Gatz lantegiaren inguruko kontuak

- **Erref:** LEI-001/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gatz-fabrikaren inguruko kontuak. Bera gaztea zela, nagusiei ikusten zien lanean antzinako erara. Manantiala, depositu nagusia, eta beste eraikin batzuk behea jo zuten. Zenbat urte eman zituen bertan lanean. Dozena bat lagun lanean.

Transkripzioa

- Ba, igual hasteko, gatz-fabrikako kontuek edo...
- Gatz-fabrikakuek?
- Bai, apur bat gatz zela eitten zan, ta...
- Gatz-fabrikako kontuak orduan... Bai. Nik [modu] baten ikusi nittuen danak. Lehenauko [zaharrek] lehenauko labetan-ta itten euen gatz [...]... Orduan mutiko gaztia nintzen, ta ikusi itten nittuen, baiña ez dakitzu? Zerik ez. Gaztiak zerik ez. Zegaittik eze ura depositotik atarateko ta horreik gauza guztiok, ba, horrek danok ikusten nittuen. Ta erruberie bueltaka zela ebillen be bai. Ta danak. Baiña nik ez nekixen zetako zan ta zer eitteko zan ha. Ta gero, oin kasua allegau da, ba, ha mina-lekuko zera, tunela ta danak, ba, hundiduta euezen, ezta? Ya dana ha zerrau zanién, iñok kasorik ein ez, ta, ba, hundidu. Gu [hor] gebitzela, betik puskat hundiduten zanién, ba, arreglau eitten gittuen, ezta? Egurrakin zera in ta kuadrúa in, ta ipini ta barriro jausten zan lekua zerrau, tapau ondo, ta pasua libre ifintten geben. Ta gero urte askuen egon zan, ba, iñok kasorik ein barik. Horreik danak zerrau in zien; ya manantialak be zerrau zien, ta depositto prinzipala be dana goraiño forrajaz bete zan. Tellatua be ittokiñakin-ta, depositto prinzipalera hundidu zan dana; kuartoiok, [...] eta danok hara jausi zien. Ta gero iñok kasorik in barik. Gero Otxoak esaten osten niri "Ze, hor, hor...?" ta "Hor... [hor ibilittakorik], ba, [...], neu". Bai, egunen bat edo bi einddakuak bai bateron bat, baiña bestela nik, ba, bederatzzi-hamar urte ein nittuen hor. Otxoak esan eusten: "Oin hortxe gura gauke jartia zertxobait, ezta? Martxan edo, ahal balitza". Zegaittik eze lehenauko honek fabrika zaharrok eta, ba, hemenguori gatz-fabrikia zan, Gatzagakuori. Hemen ez euen besterik ezebe, gatz-fabrikia. Ta gatz-fabrikian, ba, biharra eitten geben, ba, dozena bat lagun edo... Bai. Ta hemen, ba, jentia zabaldu eitten zan kanpora, ezta? Baiña horra dozena bat lagun... Bai, hor biharrien ibiltten gintzen.

2. Lan-banaketa gizon eta emakumeen artean

- **Erref:** LEI-001/007
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gatz lantegian gizonetzkoak eta emakumeak lanean. Bera, galdaran ibilitakoa. Lan-banaketa. Bere lanaren inguruko zehaztasunak.

Transkripzioa

- Ta han lana, gatz-fabrian ibili zitzenien, gizonetzuek eta emakumezuek lana eitten zauien? Gizonetzuek eta emakumezuek lana?

- Bai, gizonak eta emakumiek. Gu... Ni neu relebuen ibili nintzen betik. Bai. Gu errelebuen sei gizonetako ibili gintzen. Bai. Han guk esaten geuntsen, ba, goixen aparatuetakuak, ezta, gatz itten zertzen zana, ha goixen aparatuetan ibiltten zan, goiko tellapeien. Eskillararak, holaxe, burdiñazkuak, ta gero, egurrezko pasillua. [Ba... metruak], ba, porejenplo, urak ze kaloria dauken, gazixa ze kalorietan dauen, ta gauzak han aparatuetakuek ikusten eben. Ni neu ibili nintzen zerien, baporrien, kaldaran. Bai, kaldaran ibilli nintzen. Kaldaria, hamabost atmosfera gutxiena; hamabostetik hamazortzira, hamabostetik hamazortzira, hor; behin hamazortzitik gora be peligrua. Bai. Ta hamabostien, ba, ondo, ondo zertzen zan, gatz ondo eitten zan. Lau aparato euzen, ta lau aparatuoak, ba, ondo itten euen gatzori. Baiña hor errelebuen-ta ibiltteko ez dao hor [gatz eitten eukitteko]. Zortzi ordu biher zittuen eitten eukitteko bakarrik, gatz eitten. Han gabeko hamarretan sartzen gintzen porsiakaso, porejenplo, jai egunetan-ta, ezta? Jaixen be, ba, biharrien ekitten gintzen, hurrengo, ba, gatz gutxitxo edo "Falta eitten jok eta pedido asko jaok" eta domeka gabien igual ekitten gintzen biharrien. Ta goxerarte ez zan gatzik, harik eta goxeko lauretan, ondo [baixoian], goxeko lauretan, ya lehelengo [entresakia] etarateko. Ta aparatuo batek itten eben, lehelengo aparatuoak, aparatoik haundixena edo... Ba! Neurrixak igual euken, baiña bero guztiok hartzen zittuen hor lehelenguek eta beste hirurak beste eitten eben hak bakarrik. Bai. Bestiak hiru aparatok lau ordutik lau ordura gatz ataraten jaten; ta horrek bestiorrek bittik bira, ordu bittik ordu bira. Bai. Gatz be hoba; zurixaua., ta dana.

- Bero gehixao hartzen ebalako?

- Hak lehelengo beruok hak hartzen zittuen. Ta ura, gatz-ura, iguala zan, zer, gradu igualetakua. Baiña beruak eta danak lehelenguak handik pasetan zien, ta hak hartzen zittuen, ta gero, gerokuek, ba, hak isten eben bapor sobrantiaz. Bai, hak isten eben bapor sobrantiaz. Bai, ba, aparatuek ezkerreko aldien euzen; ezkerreko aldera, bai.

3. Lanaren inguruko zehaztasunak

- **Erref:** LEI-001/008
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:31:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Lanaren inguruko zehaztasunak; galdara.

Transkripzioa

- Ta lehenengua suakin beroketan zan? Lehenengua suakin?

- Ura beroketan zan hor, oin azkenengo gatz eitten zan aldixen, iketzaz. Bai. Kaldaria, baporra. Baporren... Esaten euen itsasuko bapor baten kaldaria edo hola izeten zala. Kaldara bat, kaldara haundixa. Bai, han kaldara barruen, ba, erdi-sartuta gorputza, erdireiño sartuta. Gero hurrengo tubuak errebentau, tubua zulatu eitten zanien han ez zan ezebe

ikusten. [Erak] eukitten eben presiñuakin [dana] baporra. Sue be, klaro, iketza zela zan fuertie, sue be [izeten] zan, baiña sue be [entzun] be eitten eben. Ha zuleketan zanien, “di-da!” kortau, freskatu dana aguro, tubue, ba, arregletako. Oso biheleku txarra izeten zan, berua, barruen oso bero egoten zan. Uraz pasetan geben, ur hotza sarri, baiña oso biheleku txarra. Ta kaldaria baporrezkua. Ta [sarririk] askotan, ba, ikusten ebenian apurtu zala, kortau dana ta, ba, atara gatzok eta aparatuak garbittu, zeaittik eze aparatuak astero-astero-astero garbiketean zien. Bai. Tubuak, horreik aparatuok, kobrezko ta zink ta latoi ta esaten euen holako mezklie eukela tubuak, ezta? Lau-lauak, kobre koloreko zerak, ta aparato bakoxtak eruengo zittuen ez dakit berrogei edo... igual... berrogei tubo, departamentu baten, e? Holako [...] baten, altura haundixa, ba, eukiko eben igual haik metro bi edo bi terdi edo luzeeria. Ta haik aparatuak enmadrinauta eruten euen plakak euen euren zuluuekin, neurrikuekin, ezta? Ta goittik behera sartzan zebe tubua ta enmadrinau eitten zebe, [...] sartu ez dain zerien, tubuetan. Ta han ez zan ez... junta... juntie ta bai, ba, urak kanpora urten ez deitzen ta zerien. Ta juntiai plaka haundixak izeten zien ta haik, ba, juntak eruten zittuen urik nahastu ez zain, baiña tubuak danak enmadrinauta. Ta madriniaz enmadrinatzen zittuen ta han ez zan pasetan. Han martxan jarten zebe, ta ura ifintzen zotsen ta ez jauken eskaperik. Fuera! Dana enmadrinauta.

4. Ikatza Asturiastik ekartzen zen

- **Erref:** LEI-001/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:31:37. **Bukatu:** 00:32:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Erregaia, Asturiastik ekartzen zen. Ikatzen kalitatea. Donostiara ekartzen zuten ikatza, portura. Ikatzen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Ta kalderetarako iketza ze zan, pago-iketza edo...?
- Ez, ez, zera, [arrazita] edo iketz hori. Ba, Asturiastik ekarten euen.
- Harri-iketza?
- Bai. Ha iketza be, ha be, han be iketza... guk laister igarten geutsen. Esaten geuntsen enkargauai: “Honek iketzzonek ez dauko”, ta “Bai, oingo aldixen esan joskuan ez auela bestaldekoik, bestelakoik eta...”. [Hori] Donostiako puertotik ekarten euen. Horra barkuan ekarten euen iketza, ta hemen Gatzagako bat euen enkargau han puertuen, ta hari zertzen otsen: “Hi, bialdik hainbeste milla kilo; bialdik hainbeste” edo “[Bagu] bat edo bi” edo... Bai, gure zana. Ta [arrazita] iketz hona, garrik bapez ta berua eukitten ebena. Bentiladoriaz haxia azpittik, azpittik bentiladoriaz, [... txuleta zeran], ta “ra!” jasoten eben gogua emoten otson puntu-punturaino. Kentzen [zeutsen] bentiladorioi, zerrau baztarra guztiak eta, ba, zati baten, ordu-erdi edo hogei minutu edo gura zana, egoten zan bero normal-normalien. Bai.

5. Gatza garraiatzeko erabiltzen ziren kutxak

- **Erref:** LEI-001/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:32:57. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Emakumeen lana zein izaten zen; enbalaje-lana. Gizonezkoen lana. Gatza estaziora eraman eta trenean kargatzen zuten. Oholezko kajak erabiltzen ziren garraiatzeko.

Transkripzioa

- Ta horreik zien... gizonezkuak eitten zittuen horreik lanok, ezta?
- E?
- Kaldarako lanak eta horreik gizonezkuak...
- Bai.
- Gizonezkuen lanak zien horreik...
- Bai. Emakumiek enbalau besterik ez eben eitten. Kartoiak poltsetan sartu, poltsok zertzen zittuen, dobetan zittuen, ta kartoiak "al momento". Han eskua hartuta eukenak, ba, uf! Ze asko, poltsa asko, egunian zertzen euen. Bai. Ta batek beste lanik ez bere kazu bategaz, ya kazutxo bat, neurrixa, ezta? Pixaketan-eta ibili barik, neurrixa izeten da, kazutxo bat. Ta poltsara "dast! dast! dast!". Batek beste lanik ez eben eitten; egun guztien. Bai. Batien bateri toketan jakon, bestien bestiei, bestien bestiei... egunien bat kanbixetan zien emakumiok. Ta besterik ez euen eitten, dana beteten. Emakumiak enbaletan, besterik ezebez.
- Kazutxo horreaz gatzta hartu ta zakueta, zakutxueta, sartu...
- Bai, bai, dana. Ta, gero, haikin emakumiekin gizakume bat ibiltten zan. Batu eitten zan, ba, [...], ha izeten zan, han eskue hartuta eukeno ta, ba, bakotxa bere puestuak eozen emonda ta fuera. Han ez zan iñobe. Ha ibiltten zan emakumiekin. Gero beste bat ibiltten zan, ba, kajak montetan; kajak montetan be bai, kajak, oholezko kajak. Kartoiak-eta hasi zien, baiña ez eben erresultau. Puertuetan ta transportien ta trenien ta ibiltten euen transporte haundixa. Hemendik estaziñora jaso ta trenian. Ta ez euela erresultetan kartoiak. Pisua be bai, berrogeta hamar kilo hartzen euen. Holakoxe kajatxo baten, ba, berrogeta hamar kilo [...]. Oholezkua, oholezko tablia neurrikuak einda kabezalak eta, zera, tapa ta gauza danak neurri-neurrikuak ekarten zittuan, ta montetan ebillenak josi besterik ez. Bai.

6. Gatza nola garraiatzen zuten

- **Erref:** LEI-001/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:36:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Idiekin garraiatzen zituzten gatz-kaxak. Bideak nolakoak ziren; karreteroak ezin. Azkenean kamioietan garraiatzen zuten.

Transkripzioa

- Ta, gero, ha eitten zan karriau? Ta...

- Ta gero, ba, gu oin azken aldera ibili gitzen idixekin. Bai. Hor [Begiñarrokoa] beste basarritar bat, ta gurie ibili zien idixekin karriuan. Ta, gero, hau kamiñuau-ta enbreau-ta in auenien idixak ez zien [bale izeten]. Hor aldatz eta [repetxotxo], ta idixak jausi eitten zin "drast!", labandu ta lurrera. Tiratu zela ein biher auen, labandu breaz. Ta, orduen, gero, karreteruok, ba, negau zien. Gurien aitta be, ba, ezin leikiela kamiñuen. Ta, gero, zuek ezautu be ingo zeuen igual, baiña... ez, zuen denporarako itxitta egon [be]... Atxabaltako [Alkur] kamioiaz.

- [Alkur], entzutie badaukat...

- [Alkur] Atxabaltakua, bai. [Alkur] ibiltten zan. Kamioia euken horrek bixen artian, horrek eta beste batek. Ta [Alkur] ibiltten zan kamioiaz ya azkenaldera. Kargetan gutsen kamioia ta Gatzagako almazenea, estaziñoko almazenea jasoten euen. Bai. Ta gero han eitten zanién, ba, bagoia... bagokada bat eitten zanién, eskaketan geun bagoia, ta guk obreruok, esaten oskun enkargauak, ba: "Bagoia jatok eta kargau ein bihar dozue". Almazenetik kargetan geben eta fuera. Bai.

7. Gatza nola garraiatzen zuten

- **Erref:** LEI-001/012
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gatz-kaxak idiekin garraiatzen ziren. Almazeneko lana.

Transkripzioa

- Lehen, kamioirik-eta ez zanién, idixekin almazenera erun biher izeten zan?

- Bai, almazenea, idixekin-ta almazenea, ta kamioiaz be bai. Kamioiaz be, ba, hurrengo aldixen, ba, [...] bagoia etorriko zala, etorri ez, ta, hurrengo aldixen, ba, pedidua [ematerako] igual apurren bat falta zala oinddio ta ez zala konpletu ta, ba, egun bat gehixao almazenién enplegetan zien ta gero almazenetik geuk kargetan gittuen. Bai. Oin balitza, ba, elebadoriek eta gauzak eta... ordun bizkarrak, bizkarrak gorri-gorri eindda. Kajak kantoi zorrotz-zorrotzakin ta segi! Bai.

8. Tren geltokian gatza gordetzeko tokia

- **Erref:** LEI-001/013
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Almazena estazioan zegoen.

Transkripzioa

- Almazena nun euen?
- Estaziñuen.
- A! Estaziñuen euen... Almazena estaziñuan?
- Bai, estaziñuan bertan. "Gure Ametsa"...
- [...]
- "Gure Ametsa", hantxe. Ta, ba, ha aparkaderua dauen han, zerori dauzena. Bai. Ta almazena euen lekura ixa "Gure Ametsa"-ko ha zera allegauko da, e? Komedoria.
- Komedoria [...], ta harutzatxua esatziñua.
- Bai, almazena aparte euen estaziñotik. Estaziñua handikaldien, almazena hemetikaldien. Bai, holaxe.
- Ta gero ya handik, ba, repartidu ta...
- Bai. Hemengo transportioi hola izeten zan.

9. Rekadistak

- **Erref:** LEI-001/014
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:38:10. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Rekadistak. Bertakoak Gasteizera joateko joera. Bergarara mandoarekin joaten zen rekadista.

Transkripzioa

- Gero egoten zien baitte errekadistak edo... Esan gura dot, transportie esan dozu ta rekadistak edo errekauek eitten ibiltten zienak edo...?
- Bai, hemen errekauek orduen, ba, errekaue gutxi, ezta? Zegaittik eze hemendik bertatik Vittorixara jentia faten zan trenian.
- [...] esan gure dau [karreterue]. Martzel ta Patxi ta...
- Bai. Hemendik lehelengo errekauek haundixenok eitten, ba, Vittorixara faten zan bertako jentia. Ta Vittorixara fan ta, ba, handik [...]. Baiña etxien beti zerbaittek falta eitten dau. Ta falta eitten ebenien hemen bertan kalien euen bat rekadista ibiltten zana Bergarara; goixien urten ta gabien bueltetan zan Bergaratik. Mando bategaz, mula zer haundi bategaz, karrua ta rekadistia. Bai. Marzel, Marzelo Elgoibar. Hil zan. Edadekua zan; ya, ba, gu gaztiak eta ha edadekua. Ta, ba, ha akostunbrauta euan holaxe. Bai, hemen [...] be gabetan, ha astien ez dakit zenbat egunien fango zan, baiña ha astien egun bi, hiru edo lau igual fango zan. Ta gero Maulandatik hona gorako, sarririk askotan, pisua ta karrua ta mandua be ya [...] bueltia eindda kantsauta, behixakin semiak urteten utsen Maulandara. Behixek

eukitten zittuen pareja bat etxien, ba, terrenuetan-ta biher puskat eitteko, ta gero behixekin Maulandara urteten utsen ta haik lagunketan utsen hona etorten behixekin. Bai.Ta hak, ba —ni akordetan naz— batien... gurien be, ba, zerbait etxien-edo falta bazan edo, hurrengo edozer gauza, ba, txutxerixaren batzuk igual, ta, ba, “Haretzek ekarri bihar dozu, Marzel” ta “Bai, bai, ekarriko dotsut”. Ta ya esta. Hak errekauek eitten zittuen. Hartan ona, e! [Buru... buru] ona hartan. Bai.

- Ta fan ze eitten zan, karrua hutsik faten zan ta gero karrua beteta etorri?

- Sarri gatzak-eta eruten zittuen, zegaittik eze, ba, hor behien be batzuk: “E! Ekarridazu zaku bat gatz!” batek be igual; beste batek igual, ba “Urlixa lekutatik ekarridazu hauxe ogixau edo bestia”; milla errekauek modu. Ta, ba, hak ein eitten zittuen. Ta hak —akordetan naz ni— behixekin-ta gatzafabrikatik, ba, igual hiru-lau zaku ekarten zittuen kalera. Ta kargau ta hurrengo egunien urteteko goxien kargauta eukitten eben gertu-gertu etxeuok ipintten utsen. Ta, ba, ha goxien hartu ta faten zan preparauta. Bai, errekauek.

- Gatzak errepartidu...

- Bai. Gero [basuen...], ba, jentiek, ba, “Etorriko dok” edo “Bixer fango gaittuk etxera”; hemen kalekuok, ba, bertakuok bertara faten gintzen ta, ba, karruen-edo han eukitten eben etxien-edo erretirauta. Errekauek gauza haundirik ez zan izeten, baiña... Hurrengo... Hurrengo igual “Ekarrizu zesto bat” igual, “barrixa”; ta hemen, ba, hau zestero jentiau, hau orduen ez zebe esistiduten hemen, ta hak hor behe-aldetik ekarten zittuen.

10. Rekadista lanaren inguruko zehaztasunak

- **Erref:** LEI-001/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Rekadistak erabiltzen zuen gurdia nolakoa zen. Gurdian zama garraiatzen zuen bakarrik; jenderik ez.

Transkripzioa

- Eta karrue zelakue zan, ba? Zelako karrue eukitten euen?

- Karrue errubera galantakin ta bi erruberakua bakarrik. Bi errubera.

- Tolduaz.

- Tolduaz?

- Bai.

- Bai, bai, bai. Ha tolduaz ta aurrien be asientuaz ta dana karruoi. Formala [itten] eben. Bai. Honek, Marzelo Elgoibarrek, laukua, horrek be laukua: aurrien bi ta atzien beste bi. Aurrien estutxuaua, atzekua zabalao... Bai. Esaten eben torpetxuaua izeten zala, baiña seguruaua. Laukua seguruaua; kargia alde batera eukitta be, ba, hurrengo kaballuek be labankada bat edo edozer gauza eindda, ba, kargiek ez ebela domiñetan ez atzera ta ez aurrera. Lau erruberakin, ba, ondo. Torpetxuaua esaten eben. Bai, entzunda nenguen ni harei ta.

- Jendeik ez zauen ebalten, ez? Karruan jenteik ez zan ibiltten...

- Ez.

- Jenteik ez, jenerua bakarrik...?

- Ez, iñor ez auen ibiltten, eurak bakarrik.

- Bai, eurak bakarrik. Ez, ez, ez. Eurak, eurak. Bai. Harek seme bi etxien, ta haik lagunketan otsen dana. Berak ya hoixe biajiori bakarrik. [Han] oso edadetu ta gero eitten eben, e! Ta Bergaratik bueltia ein ein biher da! [Ha] beti batien ikusi, bestien ikusi... Mondrau parien be ikusitta [dauket behin baiño sarrixao], ta ha oiñez. Bateko errekaak, bestia bestia, bestia bestia... oiñez, "tikirri-takarra". Bai.

11. Rekadista lanaren inguruko zehaztasunak

- **Erref:** LEI-001/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Rekadistaren lanaren ingurukoak: zenbatero egiten zituen bideiak; jaiegunik ez...

12. Garraioak: bizikleta; trena...

- **Erref:** LEI-001/019
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua asko aldatu da. Eskoriatzara, inguruko herrietara bizikletan joaten ziren; denborara, motorrean. Trenaren ibibidea, geltokiak. Toponimia.

13. Inguru hartan egondako tren istripua

- **Erref:** LEI-001/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:55:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trena deskarrilatu zeneko azalpenak. Duela 40 urte inguru gertatutako istripua. Handik denbora batera trena kendu zuten.

14. Antzinako bizimodua eta berrikuntzak

- **Erref:** LEI-001/021
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Antzinako bizimodua nolakoa zen. Berrikuntzak egun.

Transkripzioa

- Bai. Alde guztietara ez dau begitu, [baiño] oin adelantua jarri da, bai? Ta adelantuz ez dau. Baiña gure denporan ez zan holako adelanturik eta orduen aixkoria bizkarrien ta arrea! hareaz. Goxien fan ta gabera arte, geratu be. Oin, oin motosierrak, oin egur gogorra bada be, igual-igual motosierriaz "rast!" ebaten dotsue ta ya esta.

15. Baserrian eta lantegian lan egin beharra

- **Erref:** LEI-001/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Basomutil ibilitakoa. Lantegian eta baserrian lan egin behar. Gariaren garrantzia.</p>

Transkripzioa

- Basomutil be ibilittakua zara?
- E?
- Basomutil be ibilittakua...
- Bai.
- Ba, guztira. Hemen etxien euenak, ba, guztira ein biher izeten eben.
- Ta gero...
- Fabrikan be bai, baiña gero handik ordu librietan, ni betik kasik errelebuen zela ibili nitzen, basarrixen be bai.
- Ein ein biher...
- Bai.
- Gero [...] ...
- Baitte, ze oingo konturik ez euen orduen, e? Orduen, orduen garixa be etxerako urterako ogixa eittteko etxien hartzen zan. Etxerako justo samar, baiña etxien hartzen zan. Ta etxien. Ta garixe erein ta hortik eta hemetik eta itteko, ba, betik, betik in biher zeben lana. [Parejakin] lana soluen ta baztar guztietan. Oin danak zelai itxitta dao. Ta geuk be orduen bastante terreno eukitten geben; oin bapez. Oin ez... oingo jentia... Geu be holaxe nagittu gara, e! Geu be.
- Aldatu ein da ta...
- Bai. Ya oingue ikusi ta, ba, geu be hartaraxe jarri.

16. Feriara Gasteizera joateko ohitura; txerri-tratua

- **Erref:** LEI-001/025

- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Idiak saltzera Gasteizera. Feriak asko aldatu dira; lehenago asko saltzen zen. Txerri-tratua Gasteizen; "kurriñeroa".</p>

Transkripzioa

- Aurrekuan esan zosten Vittorixara be fanda zazela, ez? idi-parie saltzen.
 - Bai. Ni mutiko haundixe ez nitzela, txikitxue nitzela, aittaaz-ta faten nitzen Vittorixara idixek saltzen. Kanbixau; idirik ikusten bazan, kanbixau. Baiña Santixauetan kendu ta [komenta] izeten zan, ba, tenporada bat "Ba! Oin hiru-lau hillebetian ez jaukau lanik etxien" eta orduen, ba, idixek saltzeko kondeziñuetan eozenak saldu eitten zittuen. Bai. Ta orduen tratuek plazan bertan eitten zien. Gaur, gaur iñun traturik-eta ez dot nik ikusi. Fan izen naz plazetara-ta hola noizbait lehen, oin ez, oin bapez, baiña lehenao-lehenao faten nitzen. Ba, noizbaitten ganauak [ferixara...] eta fan. Ta, ba, lehenao ikusten zan preziaua, "Hainbeste emongo dostat", bestiak hainbeste eskatu, bestiek bestie... Oin... Edo igual-igual da txarritan-ta. Fan Vittorixara ta zer da, ta telefonotik "trrrriiin" abisau ta "Hi, ze egunetan? Txarrikumak biher jittuu" ta "Urlixa egunetan fango nauk", kotxian. Ta "rast!" kanbioiak Vittorixako lehenauko abiaziño-kanpo zaharrien. Ferixia itten zan gero. Ez eben ezebe ikusten. Txarri-ferixia edo zera eitten zan. Kanbioi batetik bestera kanbixetan bakarrik ikusten zeben ferixioi. Gu be faten gintzen, ba, orduen, ba, txarritxo bi edo hiru be igual hazi eitten gittuen etxien. Ta hazi ta, ba, [...] egoten zan. Ta hazi etxien ta fan ta, ba, hari abisau. Badakitzu, zera, kurriñerua. Hemen "kurriñero" esan ezkerro ha danak ezauketan daue.
 - "El txurrinero", bai, bai...
 - "Kurriñerua"?
 - Txarri-tratuen [dediketan zan].
 - "Txurriñero" esaten [...]
 - "Txurriñero"?
 - "Txurriñero", bai.
 - [Txarrixek] "los txurriñes".
 - "Txurriño", ba, txarrikumak.
 - [...] "txurriñes".
 - Hak kanbioikadak txarrikumak, berak esaten eben Valenzia aldera ta, kanbioiak baiña. "Zer da, hola..." ta "Joño! Kargauta... Kauen! Txarrikumak biher jittuat eta kargau dostak eta...", "Ez, oindio etorriko dittuk hobak. Zuendako hobak etorriko dittuk". Ta hak zela jakitten eben hemengo jentiek ze klase-modu edo zelakuek gure izeten zittuen, ta beste kanbioikada bat. Ta bat haundixe kargetako, hemen Araba [...] -eta ibiltten zittuenak, bi kamioi, haik txarrikumaz beteta, batera pasa ta aide! Ta neuk esan be "Baiña zela, zela hainbeste txarri?" ta "Ba! Honek salduta jaukat nik segittuan". Bai.
 - Txarrixak jaso ta...
 - Bezeruek, bezeruek hartuta. Fan ta itxuria...

17. Gasteizera idiak saltzera

- **Erref:** LEI-001/026
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:02:50. **Bukatu:** 01:04:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gasteizera oinez idiekin. Egiten zuten ibilbidea. Idiak noiz eta zergatik saltzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Zeuek oiñez Vittorixara? Oiñez?
- Idixekin bai.
- Idixekin...
- Oiñez, oiñez. Faten gintzen hemendik Betoñoaiño idixekin. Ta gurian aittak, ba, lagun bat eukan hango beziño bat, Betoñoako konbentuen bestaldetik kamiñuen, pare-parian. Ta lagun bat euken ta, ba, zer ta ikusten baeben noizbaitten [batenbaten] "Hi, ba, santixauetan etorri gure duenia]. Abisau barik be igual, e! Ni han egongo nauk", "Bueno, bien". Ta, ba, [...] Idixok urte bi edo hirutik-edo kanbixau eitten gittuen. Hemen lanien ondo jarten zienien, Arabarako moduen jarten zienien, saldu. Ze dirua hor egoten zan, arabarrak be konfiantzazkuak, ba, betik...betik gehitxua. Ta hara fan, hara allegetan gintzen gaberdi hurtxuen edo hola ta idixoi jaten emoten gutsen ittoien, ta geu be erretiretan gintzen ta eurek be bai. Ta ohia, e! Hantxe gertu. Ta gu aitta-semiok han alojetan gintzen. Goixien jagi, ta idixei jaten emon ta hortik eta hemetik idixak plazara atara ta aide idixekin...

18. Basoko lana: zuhaitzak trontzarekin botatzen zituzten

- **Erref:** LEI-001/031
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:10:20. **Bukatu:** 01:13:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basoan lanean. Zuhaitzak trontzarekin botatzen zituzten. Arrasaten erositako trontza.

19. Zuhaitzak botatzearen inguruko kontuak

- **Erref:** LEI-001/032
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:13:04. **Bukatu:** 01:14:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Pagoa "kapau". Zuhaitzak botatzearen inguruko azalpenak. Egurra zertarako behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Trankilo, bai. Holaxe.
